



EBAZPENA, 2024ko azaroaren 27koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako lehenengo aldia aldatzekoa.

Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 10eko 2024/257 (EB) Erregelamenduak 2024, 2025 eta 2026rako Batasuneko uretan aplika daitezkeen arrain populazio jakin batzuen arrantza aukerak finkatzen ditu, eta, Batasuneko arrantza-ontzien kasuan, Batasunekoak ez diren ur jakin batzuetakoak, eta 2023/194 (EB) Erregelamendua aldatzen du. Erregelamendu horrek 13.4 artikuluan xedatzen du angularen arrantza jarduerak baimendu ahal izango direla gehienez hogeita hamar eguneko aldi jarraitu edo ez jarraituan.

Euskal Autonomia Erkidegoan angularen arrantza profesionala arautu eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortu zuen ekainaren 18ko 77/2024 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen du angularen arrantza-denboraldia bera, denboraldi horren aldaketak edo etendurak arlo horretako Zuzendaritza eskudunaren ebazpen baten bidez ezarriko direla, Kantauri itsasoko ertzeko beste autonomia-erkidego batzuekin koordinatuta, beharrezko euskarri tekniko eta zientifikoarekin, eta inola ere ez du gaindituko Batasuneko araudian aurreikusitakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako lizentzia-eskabideak aurkezteko epea ezarri, eta arrantzaren zenbait arlo arautzen dituen Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2024ko irailaren 24ko Ebazpenak 6. artikuluan xedatzen du 2024-2025eko kanpainako angularen arrantza-denboraldiak aldi hauek izango dituela: 2024ko azaroaren 29tik abenduaren 5era; 2024ko abenduaren 26tik 2025eko urtarrilaren 3ra; 2025eko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era; eta 2025eko otsailaren 24tik martxoaren 2ra. Halaber, ezartzen da arrantza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularraren ebazpen baten bidez, eta baldintza meteorologikoen arabera, 48 ordu lehenago aldatu ahal izango direla kanpainaren datak.

Angularen arrantza profesionalerako kanpaina azaroaren 29an hasiko dela ezarrita badago ere, iragarpen meteorologikoen arabera baldintzak egokiak izango ez direnez jarduera egiteko, hasiera hori atzeratzea komeni da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 19.1.f) artikuluan arabera, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagozkio arrantzarekin lotutakoak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoko 2024-2025 denboraldirako angularen arrantza profesionalerako kanpainako lehenengo aldia aldatzea, eta horrela, ezarrita zegoen aldiaren orde:

2024ko azaroaren 29tik abenduaren 5era (7 egun).

Aldi hau hartuko du:

2024ko abenduaren 12tik 18ra (7 egun).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke arrantza arloko eskumena duen sailburuordetzako titularrari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. Ebazpen honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 27a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.